



EUSKARA ZERBITZUA

Arangurengo Ibarra

6 Zk. 2010ko apirila-abuztua

Informazio Buletina

ARANGUREN EREMU MISTOAN

Parlamentuak eta Aranguren Ibarreko Udaleko Osoko Bilkurak gehiengo osoz onartu ondoren, Aranguren udalerria Euskararen 18/1986 Foru Legearen arabera eremu mistoan sartu da. Irulegi, Ibarrean euskara sustatzeko lan egiten duen elkarte bat da. Jarraian, Ainhoa Rodrigorekin hitz egiteko aukera izan dugu, Irulegi elkarteko kide batekin.

Noiz eta zein helbururekin sortu zen Irulegi elkarteak?

Irulegi elkarteak 2004an sortu zen eta bere helburuak Ibarrean euskararen ezagutza eta erabilera zabaltzea da, baita hizkuntza bere hiztun eta lagunengana hurbiltzea ere. Helburu horien lorpenerako, elkarteak beti uste izan du 18/1986 Foru Legeak ezartzen duen eremuen arabera zatiketaren desagerpena beharrezkoa dela, eta hori ezean, Ibarra eremu mistoan sartzea.

Zergatik da hain garrantzitsua Ibarra eremu linguistiko batean edo bestean egotea?


Aipatutako euskarari buruzko legeak eremu bakoitzean euskararen erabilera normal eta ofiziala arautzen du, eta herritarren hizkuntza eskubide ezberdinak ezartzen ditu horietako bakoitzean. Zentzu gutxi du Nafarroako pertsonok bizi garen lekuaren arabera hizkuntza eskubide gehiago edo gutxiago izatea; baina, gainera, guk beti defendatu izan dugu Ibarra soziolinguistikoki Iruñerriko beste herrien oso antzekoa dela, eta beraz, oraindik zentzu gutxiago du Arangurengo biztanleok Iruñerriko beste zonalde batekoek baino hizkuntza eskubide gutxiago izateak.

Zein uste duzu izan dela aldaketa hau egi bihurtzeko giltza?

Ibarreko biztanleen eskaera eta horrek Udalak zein Nafarroako Gobernuak egindako zenbait ikerketan izandako islas aparte, Udalaren jarrera eta horrek Nafarroako Gobernuari egindako eskaerak garrantzitsuak izan direla pentsatzen dut.

Zeintzuk uste duzue izango direla Aranguren eremu mistoan sartzearen ondorio zuzenenak?

Hemendik aurrera, Ibarreko biztanleok aitortuta izango ditugun hizkuntza eskubideak, adibidez, Iruñako biztanleek aitortuta dituzten berdinak izango dira. Esaterako, euskaraz ikasteko eskubidea. Garrantzitsua hori da. Horrez gain, udalak dagoeneko eskaintzen zizkigun zerbitzu batzuk lege euskarri zabalagoa lortuko dute, egonkortasun handiagoa. Zerbitzu ezberdinei dagokionez lortu daitezkeen aurrerapausoak, neurri handi batean, Ibarreko biztanle eta elkarteok instituzio ezberdinei egiten dizkiegun proposamen eta eskaeren menpe egongo dira. Guk, Ibarrean euskararen sustapenerako lan egiten duen elkarte gisa, gure burua eskaintzen dugu eskaera eta proposamen guzti horiek bideratzeko. Horretan interesa izan dezakezuen pertsona eta talde guztiak gurekin harremanetan jartzera gonbidatzen zaituztegu, horretarako deitu 948 15 13 82 telefonora edo bidali mezua euskera@aranguren.es e-postara.



HAUR ETA FAMILIENTZAK JARDUERAK

ANTZERKIA EUSKARAZ

Taldea: Dar-Dar Produksioak

Lana: "Eta zer?"

Egokitzapena: Pablo Valdés

Zuzendaritza: Anartz Zuazua / Asier Zinkunegi

Eguna: apirilak 11, igandea

Ordua: 18:30

Lekua: Mutiloako Kultur Etxeko Auditorioa

Sarrera: 3 euro

Ikusle guztientzako jarduera.



PAILAZOEN IKUSKIZUNA EUSKARAZ

Pirritx, Porrotx eta Marimotots

Lana: "Irrien lagunak"

Eguna: maiatzak 5, asteazkena

Ordua: 18:00

Lekua: Mutiloako Kirolegia

Sarrera: 3 euro

Ikusle guztientzako jarduera.

Informazio gehiago Euskara Zerbitzuan.



EUSKAL JOLAS ETA JOKOEN GYMkana

Eguna: maiatzak 9, igandea

Ordua: 10:00-13:30

Lekua: Labiano

Biztanle guztientzako jarduera

Izen emateak: apirilaren 12tik 23ra Euskara

Zerbitzuan, 9:00etatik 14:00etara.



GAZTE ETA HELDUENTZAKO EUSKARAZKO JARDUERAK

MINTZAKIDE MENDI TALDEA

Igandeetan, goizeko 8:15ean, korralilloetan.

Hurrengo irteerak:

Apirilak 11: Beriain (Unanitik)

Apirilak 18: Olloaran

Maiatzak 2: Urraulgoiti

Maiatzak 16: Iratiko oihana

Maiatzak 30: Moncayo

Ekainak 13: Isturitze (Behe Nafarroa)

Ekainak 27: Aralarko San Migel (Iribastik)

Informazio gehiago:

www.blogak.com/mintzmendialdea



ANTZERKIA

Eguna: maiatzak 7, ostirala

Ordua: 20:30

Lekua: Mutiloako Kultur Etxeko Auditorioa

Lana: "Euskarazetamol"

Zuzendaria: Jokin Oregi

Musika: Josu Zabala

Antzezleak: Patxo Telleria eta Mikel Martinez

Sarrera: 2,5 euro

Gazte eta helduentzako jarduera.



ALDAKETA KLIMATIKOARI BURUZKO HITZALDIA

Eguna: maiatzak 6, osteguna

Ordua: 19:00

Lekua: Mutiloako Kultur Etxea

Aranzadi Zientzia Elkartearen eskutik.

TAILERRA: ZANPANTARRARI BURUZKO HASTAPENAK

Eguna: maiatzak 9, igandea

Ordua: 10:00

Lekua: Labiano

Gazte eta heldu euskaldunentzako jarduera.

Hurbildu zaitetz maiatzaren 9an goizeko

10:00etan Labianora eta joaleak jantzi eta goizean zehar eurekin ibiltzeko aukera izango duzu. Gustatzen bazaizu eta jende nahikoa animatuko balitz, **Ibarrean talde bat osatzeko aukera** aztertuko da.



BIZTANLE GUZTIENTZAKO JARDUERAK

IBARRA EREMU MISTOAN SARTU DELA OSPATZEKO JAI IBILTARIA

Autobus batek Ibarra jai giroan zeharkatuko du ibarreko biztanle eta talde guztiei helburu hau lortzeko egin duten lana eskertzeko.

Eguna: apirilak 18, igandea.

Gutxi gora beherako ordutegia:

- 11:00: Mutiloako San Pedro Ikastetxe Publikoa

- 11:15: Taxoara

- 12:15: Zolina

- 13:15: Labiano

- 14:15: Aranguren

- 15:15: Mutiloako Eguzki plaza

- 16:15etik aurrera, Udaletxeko plazan hasiko den **TRIKIPOTEOA**.

Herri guztietan **pintxo eta pote** batez gozatu ahalko dugu. Jai egunean zehar proiektatuko den Ibarra eremu mistoan sartzeko prozesuari buruzko informazio bideo bat prestatzen ari gara.

Bertarutzen diren guztien artean **Ibarreko ikerketa soziolinguistikoa** banatuko da.

EUSKARAREN ASTEA

Maiatzak 5etik 9ra ospatuko da. Asteburuko jarduerak **Labianon** egingo dira.



HURRENGO JARDUERAK

HIRI KANPALDIAK

Aurre-inskripzioa: maiatzean zehar, datak zehazteke.

Adina: 2010ean betetako, 4 eta 12 urte bitartean

Datak: uztailak 19 – abuztuak 27 (haur bakoitzak gehienez 4 aste hartu ahalko ditu)

Lekua: San Pedro IP

Parte hartzaile eta txanda bakoitzeko **prezioaz** galdetu Oinarrizko Gizarte Zerbitzuan.

D EREDUKO HAUR ETA GAZTEENTZAKO UDALEKUAK

Aurre-inskripzioa: maiatzeko lehenengo hamabostaldiko 3 egunetan zehar, Euskara Zerbitzuan. Galdetu apirilaren bukaera aldean.

Iraupena: 7 egun (informatu zaitetz txanda ezberdinei buruz Euskara Zerbitzuan)

Datak: uztaila eta abuztuko lehenengo hamabostaldia.

1. PIRATEN UDALEKUA

Adina: Lehen Hezkuntzako 1.-3.

Lekua: Pasai Donibane

Prezioa: 135 euro



2. XAMARIKO UDALEKUA

Adina: Lehen Hezkuntzako 4.-5.

Lekua: Larraul

Prezioa: 135 euro

3. BERTSO UDALEKUA

Adina: Lehen Hezkuntzako 4.-5.

Lekua: Orio

Prezioa: 154 eur



4. UDALEKU SORGINDUA

Adina: Lehen Hezkuntzako 6. eta DBHko 1.- 2.

Lekua: Zugarramurdi

Prezioa: 140 euro

HELDUENTZAKO EUSKARA IKASTEKO BEKAK

Dokumentazioa aurkezteko **epea** ekainetik aurrera irekiko da eta urrira arte iraungo du.

Informazio gehiagorako: udaleko webgunea, UIG, udaleko iragarki taulak eta Euskara Zerbitzua.

2005A BAINO LEHEN JAIOTAKO D EREDUKO HAUR ETA GAZTEENTZAKO GARRAIO ETA JANTOKI BEKAK

Dokumentazioa aurkezteko **epea** ikasturteko azken egunetik aurrera irekiko da eta uztailaren bukaera aldera arte iraungo du.

Aurkeztu beharreko **dokumentazioaren** artean ikasleak jantokia erabili duen egunak zehaztuko dituen ziurtagiria egongo da. Eskatzaileak dokumentu hau eskolan eskatu beharko du jantoki zerbitzua bukatu aurretik.

Informazio gehiagorako: udaleko webgunea, UIG, udaleko iragarki taulak eta Euskara Zerbitzua.

Udalaren helburua Ibarreko taldeekin elkarlanean aritzea da. Horregatik, Udaletik gizarte eragile eta norbanako guztiei hizkuntzaren normalizazio prozesu honetan parte hartu eta inplikatzeko gonbidapena luzatu nahi dizuegu.

EUSKARA ZERBITZUA
Eskoletako k/9, Mutiloabeiti
Astelehenetik ostiralera
9:00etatik 14:00etara
948 15 13 82
euskera@aranguren.es
www.aranguren.es